



**beste barik,** errealidadea eraldatzeko



**Elikadura-burujabetza:  
elikatzea ez da mundua jatea**

## GOGOETA

Elikadura-buruja betza herri guztiek, era ekologiko, sozial eta ekonomiko egokian, kultura eta ekoizpen aniztasuna kontuan hartuz, euren elikagaiak garatzeko, zer eta non landatzea erabagiteko izan beharko leuki en eskubidea da. Nekazari en lurra, ura, haziak jadesi daiezala eta kontsumitzaileok jaten doguzan jakiei buruzko informazio osoa izan daigula.

Guzti hau ezinezkoa da gaur egun, indarrean dagozan politik en lehentasuna emoten deuselako nazinoarteko merkataritza eta herriak nekazaritza-inportazio en menpeko egiten dabezalako derrigorrez. Lurragaz espekulatu egiten da, haziak pribatizatu egiten dira, ura gero eta garestiagoa da eta produktuaren etiketaz, ia ez dakigu zer jaten dogun be.

Hegoaldeko herrialdeetan gizatalderik kalteberenek jasaten daben egoera honek 1.000 milioi lagunetik gora gosera kondentzen dau eta horreen hiru laurenek, harrigarria bada be, elikagai en landaketan jarduten dabe.

Elikadura-buruja betza munduan gosea eta pobretasuna deuseztatzeko aukera lez sortzen da, batez be elikagaiak ez daitez en merkantziatza hartu nazinoarteko merkaduan, ez daitez en muga bako espekulazioaren menpe egon eta ez daiez en arma politiko lez erabili. Lehentasuna emoten deutse lekuko ekonomiei eta kontuan dau ingurune, gizarte eta ekonomia jasangarritasuna. Herri guztientzako sarrera duinak bermatuko dituan eta kontsumitzaileei euren elikadura kontrolatzeko eskubidea garatzea ahalbideratuko deutsen merkataritza gardena suspertzen dau.

## ekintza

- Merkataritza-kateak milaka laguni kalte handiak eragiten deutsez en eta ekoizpen neurribakoak, estandarizatuak eta izadiaren harrapariak ezartzen dituan eredu dira. Nekazariak duintasunez eta gizalegez bizi daitez en, aldaketak egin behar dozuz zure kontsumo-ohituretan eta ekintza desbardinak burutu behar dozuz, esate baterako:
- Kontsumitu lekuko eta sasoko produktuak, izadia eta bere zikloak errespetatuz landatu izan diranak.
  - Produktuen transformazioa ekoizten dauanagandik ahalik eta hurbilen egitea eskatu.
  - Gure uri eta herrietako denda txikietan erosi.
  - Kontsumo ekologikoko kooperatibak eta Bidezko Merkataritzako erakundeak babestu.